

Gure enpresak, funtzionatzeko, hainbat enpresa edo hornitzaileen beharra izango dugu.

Alde batetik, giltza elektronikoen eta sentsoreen fabrikatzaileekin lan egingo dugu urruneko irekiera eta geolokalizazio bidezko kontrola ahalbidetzeko. Software-garatzailerak gure aplikazio mugikorra sortuko dute, gure bezeroentzat erraztasuna lortuz. Gainera, telekomunikazio-operadoreak izango ditugu sistemaren konektagarritasuna bermatzeko. Diseinu industrialeko hornitzaileak eta fabrikatzaileak hardware-a garatzen lagunduko dute, eta lege-aholkulariek araudia betetzen dela ziurtatuko dute. Eta, azkenik, finantza-hornitzaile bat, gure diru-sarrerak gordetzeko eta, behar izanez gero, maileguak jasotzeko banku bat.

Marketing, giza baliabideak, finantzak eta ekonomia kudeatzeko gure talde propioa izango dugu enpresa barruan, sektore hauetako adituez osatua.

ADT Security enpresarekin harremanetan egongo gara estatu mailan gure zerbitzuak batera kontratatzeko aukera eskainiz.

Beste alde batetik, Estatuko segurtasun eta defentsa zerbitzuekin eta hainbat hirietako udaltzaingoarekin bat lan egingo dugu, izan ere, beraiek dira etxebizitzetako segurtasunaren alorrean ardura publikoa dutenak.